

2007KO ABENDUAREN 12KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko abenduaren hamabian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko azaroaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 10 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, BERROGEITA HEMEZORTZI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA HOGEITA HAMABOST ZENTIMO (58.662,35,-)koa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja, 2007ko azaroaren 23tik egoitzan sartzeagatik.
- 324 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja, 2007ko azaroaren 22tik egoitzan sartzeagatik.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 853 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairua ordaintzeko 15,80 € ematea eta mantenimendu gastuak ordaintzeko hilean 92,5 euro abenduan. Eskatutakoaren %100a da.

Telealarmarako laguntzak.-

- 489 zbk.dun esped.: telealarmaren instalaziorako 57,21 euroko dirulaguntza ematea eta urtean mantenimendu gastuentzat 60,95 euro. Ematen zaiona eskatutakoaren %75a da.

Erretiratu eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

“Orobione” erretiratu eta pentsiodun elkarteari ondorengo dirulaguntzak ematea:

- 1.980,00 euro San Miguel egunerako
- 4.151,41 euro ekintzen garapenerako
- 369,55 euro altzarien inbertsiorako

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Herriko irabazi xederik gabeko taldeei dirulaguntza eguberri jaietako jardueretarako.-

Eguberri jaietan hainbat taldeek egingo duten jardueretarako Euskara/Kultura batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

<u>TALDEA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Zawopi	2.780,00 €
Ansoategi	1.800,00 €
Rwanda Taldea	1.650,00 €
GUZTIRA	6.230,00 €

Herriko irabazi xederik gabeko taldeei dirulaguntza 2007an egindako jarduerengatik.-

2007ko ekitaldian udalerriko hainbat taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren Euskara/Kultura batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

<u>TALDEA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Antzar Gazteak	2.400,00 €
Lazkao Abesbatza	780,00 €
Oian Arin Dantzataldea	2.500,00 €
Xanbe Abesbatza	500,00 €
Kantaka Abesbatza	630,00 €
Txistulariak	620,00 €
Azki	315,00 €
Monja Zistertarrak	380,00 €
Herrikoak ez direnak:	
Argi Berri Bertso Eskola	315,00 €
GUZTIRA	8.125,00 €

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi t'erdia direnean nik, Idazkari lanetan ari naizenak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.